INFORMAZIO-OHARRA: 2025-26 DBHKO SARI BEREZIAK

PROBAK URRIAREN 15ean, OSTEGUNA, EGINEN DIRA IRUÑEKO BASOKO BHI-an.

Izangaiak Basoko BHI-an agertuko dira **15:45an**, NAN fisikoa eta bolaluma aldean dituztela. Programatu ezin daitezkeen kalkulagailuak ekar daitezke. Probak egin bitartean ez da inolako gailu elektronikorik onartzen.

1. PLIKAK

Zuzenketan anonimotasuna bermatzeko, ikasle bakoitzari identifikazio zenbaki bat esleituko zaio, aldiro oroitu beharko duena. Zenbaki hori jarri beharko du azterketa orrialde guztien goialdeko eskuinean.

Halaber, ariketa bakoitzaren orri bakoitzari zenbakia paratuko zaio behealdeko erdian, orri zenbakia adieraziz guztirako orri kopuruari dagokionez. Adibidea: 1/3; 2/3; 3/3.

2. EGIN BEHARREKO PROBAK

Lehendabiziko zatia (bi ordu izanen dituzte egiteko)

– Gaztelania eta Literatura edo Euskal Hizkuntza eta Literatura, ikaslearen hizkuntza ereduaren arabera. Testu baten azterketa eta iruzkin kritikoa, eta hizkuntzari edo literaturari buruz planteatzen diren galderen erantzunak.

– Matematika: galderei erantzun beharko zaie eta/edo ariketa praktikoak ebatzi eta/edo problemak ebatzi.

Atsedenaldia: 30 minutu

Bigarren zatia (ordu bat izanen dute egiteko)

– Atzerriko hizkuntza: ikasi duen atzerriko lehen hizkuntzaren testu bat eman eta ulermeneko eta idatzizko adierazpeneko atazak bete beharko dira eta hizkuntzari edo literaturari buruz planteatzen diren galderen erantzunak.

3. ERREKLAMAZIOAK

Kalifikazioak https://www.navarra.es/es/tramites/on/-/line/Premios-Extraordinarios-de-Educacion-Secundaria-Obligatoria web orrian argitaratuko dira urriaren 23an.

Azterketa egin duten ikasleek, beren gurasoek edo legezko ordezkariek erreklamazioak aurkeztu ahalko dituzte, idatziz, lortutako azken kalifikazioaren kontra, eskabidea epaimahaiko buruari bidaliz, bi egun balioduneko epean, kalifikazioak lehen aipatutako web orrian argitaratzen diren egunetik hasita.

Erreklamazioak ebatzitakoan, azken notak leku beran jarriko dira ikusgai.

4.- INSTALAZIOETARAKO SARBIDEA

Instituturako sarbidea horrela izanen da: 15:45an epaimahaikideak instituturako sarbideko atean kokatuko dira sarrera kontrolatzeko. Institutuko patioan izangaiek zein geletan egon behar duten zehazten duten lau zerrenda kokatuko dira.

101 ikasgelari dagokion zerrendan D eredutako izangaiak agertuko dira; A/G ereduko ikasleria 101, 102, 103 eta 104 geletan banatuko da. Izangaiak patioko eskuinalderantz joanen dira eta dagokion gela zenbakiarekin bat datorren txartelaren parean kokatuko dira. Epaimahaikideak bertaratuko dira, ikasleak dagozkien gelara bideratu eta lagunduz.

Lehenik eta behin 101 gela egokitu zaion ikasleria sartuko da, 102, 103 eta 104 ikasgeletakoarekin jarraituko delarik.

Frogen aurretik ez dira ikasleak banan bana deituko; ikasleen identifikazioa gelan bertan gauzatuko dute epaimahaikideek. Hori dela eta, ikasleek NAN fisikoa eraman eta mahai gainean utzi beharko dute.

5.- IRTEERAK ETA KOMUNEN ERABILERA

Epaimahaikideek froga bukatu duten ikasleriari irteera emanen diote, banan bana.

Komunerako sarbidea ere epaimahaikideek emanen dute; banan bana eta behin froga bukatu eta gero.

Froga bat eta bestearen artean 30 minutuko atsedenaldia egonen da. Denbora tarte horretan ikasleriak institututik ateratzeko aukera izanen du. Ikastetxean geratzekotan, patioan geratu beharko du. 18:30etan, epaimahaikideek berriz ere sarbidea emanen diote ikasleriari bigarren froga egiteko.